

TURISMO-ESPERIENTZIA JASANGARRIAK GARATZEKO PROGRAMA

Pirinioak, Baztan-Bidasoa, Pirinioaurea-Zangozako eskualdea, Urdina eta
Plazaola-Sakana-Ultzamaldea



Marketineko proiektua Pirinioak, Baztan -Bidasoa, Pirinioaurrea – Zangoza eskualdea, Urdina eta Plazaola - Sakana – Ultzamaldea PSTD-aren esparruren barne dago, hau Cederna Garalur-ek kudeatzen du eta Europar Batasuneko Next Generation EU funtsak finantzatzen ditu, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren baitan.

Programaren helburuak

Ezagutu nola bihurtu zure turismo jarduera, esperientzia turistiko autentiko, jasangarri eta ahaztezin batean!

Nafarroako Turismo-Esperientzia jasangarriak Garatzeko Programan dauden bost helmugetako, hau da, Nafarroako Pirinioak, Baztan-Bidasoa, Pirinioaurrea – Zangozako eskualdea, Plazaola – Sakana – Ultzamaldea eta Urdinako turismo-sektorean edota turismo sektorearekin harremanetan lan egiten duten pertsona, erakunde eta enpresak dira. Nafarroako turismo ekosistemaren parte bazara, bai kudeaketa publikoan, bai ekimen pribatuan edo turismoarekin zerikusia duen edozein jardueretan, programa hau zuretzat pentsatuta dago.

Lurraldeko eta alor hontako atal garrantzitsuetako bat al zara? Zure zain gaude!

Onuradunak

Nafarroako iparraldeko Turismo-Esperientzia jasangarriak Garatzeko Programan dauden bost azpieskualdeetan turismo-sektorean edo eta turismo sektorearekin lan egiten duten pertsona, erakunde eta enpresak dira: **Nafarroako Pirinioak, Baztan-Bidasoa, Pirinioaurrea – Zangozako eskualdea, Urdina eta Plazaola – Sakana – Ultzamaldea.**

Nafarroako turismo ekosistemaren parte bazara, bai kudeaketa publikoan, bai ekimen pribatuan edo turismoarekin zerikusia duen edozein jardueretan, programa hau zuretzat pentsatuta dago.

Lurraldeko piezaketako bat al zara? Zain izango gaituzu!

Programan parte hartzearen onurak

Sustatu zure turismo proposamena laguntza, ikusgarritasun eta tresna errealekin.

◆ Ikusgarritasuna lurraldean eta kanpoan:

Zure proiektua edo ekimena esperientzia iraunkorren katalogo digitalaren parte izango da, eta Iraunkortasuneko Turismo Planaren eta erakunde laguntzaileen bidez zabalduko da.

◆ Esperientzia berritzaileen diseinua:

Lurraldearekin lotutako eta bisitariarentzat balio gehigarria duten proposamen turistikoak sortzeko edo hobetzeko laguntza eta jarraipen pertsonalizatua jasoko duzu.

◆ Formazio praktikoa eta espezializatua:

Nafarroako iparraldeko helmuga bakoitzaren ezaugarrietara egokituta dauden, jasangarritasunari, turismo produktuei eta esperientziaren kalitateari buruzko ikuspegia duten aurrez aurreko tailerretan eta online edukietan sartzeko aukera izango duzu,

◆ Lankidetzarako eta ikaskuntza kolektiboetarako espazioak:

Parte hartu zazu familiarizazio bisitetan, jardunaldi teknikoetan eta truke jardueretan, turismo ekosisteman parte hartzen duten beste pertsona eta entitateekin batera.

◆ Aholkularitza pertsonalizatua:

Mentoretza saio pertsonalizatueta sartzeko aukera izango duzu esperientzia-turismoan, turismo jasangarrian eta esperientzien garapenean adituak diren profesionalen laguntzarekin.

Izen-ematea

Izen-ematea doakoa da. Webgunean zure erregistroa bete besterik ez duzu egin behar:

👉 https://www.cederna-garalur.creacionexperiencias.com/eu_ES

eta programako jarduera guztietan modu aktiboan parte hartzeko konpromisoa hartu.

Programa gaztelaniaz edo/eta euskaraz emango da, Nafarroako iparraldeko azpi-helmugaren eta parte-hartzaileen beharren arabera.

Ez galdu hazteko eta sektoreko lankidetza sustatzeko aukera hau!

Exekuzio epea

Esperientzia Turistiko Iraunkorrak Garatzeko Programa 2025eko ekainetik 2026ko apirilera bitartean garatuko da.

Programaren egitura



FASE 1: Programaren diseinu operatiboa eta sentsibilizazio-jardunaldiak

Bost azpi-helmugak bisitatuko ditugu **programa aurkezteko eta zure parte-hartzea aktibatzeko.**

Fase honetan, **zure ekimenari eta lurraldeari** buruzko funtsezko informazioa jasoko dugu, eta, horri esker, **tokiko beharretara eta eremu bakoitzaren turismo-testuinguru espezifikorako egokitutako prestakuntza-proposamen** bat diseinatu ahal izango dugu.

Horretarako, **baliabide turistikoak eta lurraldearen egungo egoera** aztertuko ditugu, garapen-ahalmen handiena duten esperientzia jasagarriak identifikatzeko.

Diagnostiko honi esker, programaren lehentasunak ezarriko dira eta eskeiniko den formakuntza eta laguntza **eremu bakoitzaren aukera eta beharrekin bat datorrela bermatuko da.**

2. FASEA: Esperientzia turistikoen formazio eta sorkuntza

Doako prestakuntza-programa praktikoa eta espezializatua jarriko dugu abian, parte hartzen duten **pertsona eta erakundearen profilerak egokituz**.

Aurrez aurreko eta online ikastaroen bidez, zure proposamen turistikoa sortzeko edo hobetzeko tresnak jasoko dituzu, ikuspegi jasangarria, berezia eta profesionala izango dutenak.

Honako hauek lortuko dituzu:

- **9 prestakuntza-ikastaro**
 - **1. ikastaroa:** Turismo esperientzia gogoangarrien diseinua: Berrikuntza sektorean **(Presentziala)**
 - **2. ikastaroa:** Ondare eta kultura turismoa birpentsatuz **(Online)**
 - **3. ikastaroa:** Etorkizunera pedalei eraginez: Zikloturismo esperientzien diseinua **(Online)**
 - **4. ikastaroa:** Historiadun zapoak: Esperientzia enogastronomikoen sorkuntza **(Online)**
 - **5. ikastaroa:** Turismo Berdea: Berrikuntza ekoturismo eta turismo jasangarria **(Online)**
 - **6. ikastaroa:** Bidea esperientzia gisa: nola diseinatu produktu turistikoak Done Jakue bidearen inguruan **(Online)**
 - **7. ikastaroa:** Merkaturatze estrategiak: Nola saldu esperientzia turistikoak modu eraginkorrean **(Online)**
 - **8. ikastaroa:** Lankidetzaren indarra: Turismo esperientzien sorkuntza **(Online)**
 - **9. ikastaroa:** Erreputazioaren eta fidelizazioaren kudeaketa turismoan **(Online)**
- **Hiru tailer presentzial:**
 - Turismo-produktuak eta-esperientziak sortzeko **tailerra (Presentziala)**
 - Esperientzien paketzatze-**tailerrak (Presentziala)**
 - **Workshop** praktikoa, networking eta turismo-sustapeneko ekitaldietan nabarmentzeko gakoak **(Presentziala)**

3. FASEA: Tailer eta aholkularitza pertsonalizatuak

Zure **esperientzia turistikoaren diseinu eta hobekuntza** agunduko dizugu, **aurrez aurreko tailerren, banakako aholkularitzaren eta erabiltzaileekin benetako testeoaren bidez**.

Fase honek **zure proposamena balioztatzen** lagunduko dizu eta laguntza tekniko espezializatuarekin proposamena **hobetu** eta **etorkizunean merkaturatzen prestatzeko** aukera emango dizu.

FASE 5: Esperientzia turistikoen katalogo digitala sortzea

Diseinatutako esperientzia guztiak katalogo bisual eta eleanitz batean bilduko ditugu, **lurraldea sustatzeko, kokatzeko eta ikusarazteko** tresna izango dena.

Zure proposamena eskaintza turistiko bateratu baten parte izango da, **helmugari balioa emateko eta turismo jasangarriarekin konprometitutako publiko berria erakartzeko** diseinatua dagoena.

Parte hartzeko konpromisoak

Prestakuntza-programa honetan parte hartzen duten pertsona eta erakundeek modu aktiboan **ikastaro eta tailerretan parte hartu beharko dute, bai presentzialki bai birtualki, eta online eskeiniko den prestakuntza osatu beharko dute**, turismo arloan dauzkaten funtsezko ezagutzak eta trebetasunak eskuratzearen garrantzia aitortuz.

Era berean, hasierako diagnostikorako behar den informazioa ematea, **jakintzaren eta prestakuntza-jardueren balorazioetan parte hartzea eta programaren ebaluazio orokorrean parte hartzea espero da.**

Funtsezkoa da **turismo-esperientziak sortzeko fitxa entregatzeko ezarritako epeak betetzea**, ekimen honen arrakasta kolektiboarekiko **konpromiso eta erantzukizunaren** erakusgarri.

Programan zehar entregatu beharreko materialak

- Enpresentzako diagnostikoaren formularioa
- Ezagutzaren-balioespenak
- Prestakuntza-proiektuaren balorazioa
- Turismo-esperientziaren diseinua enpresa parte-hartzaile bakoitzeko

Prestakuntza egiaztatzeko baldintzak

Prestakuntza egiaztatu ahal izateko, beharrezkoa izango da **programako prestakuntza-jardueren % 80an aktiboki parte hartzea.**

Horrek barne hartzen ditu:

1. **Online eskeiniko den formazioa:** Denetara 9 prestakuntza-ikastaro.
2. **Turismo-esperientziak sortzeko tailerrak:** Turismo-esperientziak sortzeko bi tailer egingo dira.
3. **Coworking jardunaldiak:** Coworking jardunaldietan parte hartzea proiektuan parte hartzen duten gainerako enprekin.

EZ IZAN ZALANTZARIK GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO!

Eskaneatu QR kodea zure mugikorrarekin webgunera sartzeko.

**DARRI GUREKIN
HARREMANETAN:**



<https://www.cederna-garalur.creacionexperiencias.com>



proiektukudeaketa@cederna-garalur.creacionexperiencias.com



665601 746